



# LEZON

10'

MARTXOA 2020 MARZO

## Lezo, ohitura osasungarriak sustatzen dituen herria

*Un municipio que promueve hábitos saludables*





Jesus Mari Martiarena  
Lezoko alkatea

## Enpleguaren sustapena lan ardatz nagusi

## *La promoción del empleo, principal eje de trabajo*

Guretzat pertsonak dira gure lanaren ardatz nagusia eta horregatik, hasiera hasieratik ahalegin eta esfortzu berezia egin dugu tokiko ekonomia indartzeko, guretzat lehentasunezkoa baita enplegua sustatzea, bereziki, langabezián dauden herritarrei irtenbide eta aukera berriak eskaintzeko.

Horretarako, lankidetza estua dugu eskualdeko Oarsoaldea Garapen agentziarekin eta urtero udal aurrekontuetako kontu sail garrantzitsua bideratzen dugu bertara, guzion baliabideak batuz langabeziari aurre egiteko tresna, bide edota egitasmoak landu eta bultzatzeko. Eta hain zuzen Garapen Agentziarekin batera garatutako programa eta egitasmoi esker, 2019an 11 lanpostu berri eskaini genituen: 2 Lezoko Enplegu Planaren bitartez, 3 Lanbideko Enplegu Planaren bitartez, 3 Gazte Enplegurako Talka Planaren bitartez eta beste 3 Lezoko Kokatu programaren bitartez.

Ekonomiaren sustapenak ongizatea dakar eta enpleguak pertsona duintzen du. Horregatik, legealdi honetan ere lanean jarraituko dugu, martxan dauden egitasmoi jarraipena emanez, herritarrei lan aukera berriak eskaintzen jarraitzeko.

Las personas son nuestra principal prioridad y nuestro principal eje de trabajo, por lo que desde nuestro primer día al mando del Ayuntamiento, hemos hecho especial hincapié y esfuerzo en el fomento de la economía local, ya que el equipo de gobierno considera imprescindible y prioritario fomentar el empleo con el fin de ofrecer a las personas desempleadas de Lezo nuevas oportunidades en este ámbito.

Para ello trabajamos codo con codo con la Agencia de Desarrollo Oarsoaldea, a la cual destinamos cada año una importante partida presupuestaria para explorar y fomentar nuevas vías e iniciativas para hacer frente al desempleo de Lezo. Y concretamente gracias a las iniciativas desarrolladas en colaboración con la Agencia, en 2019 conseguimos emplear a 11 personas: 2 a través del Plan de Empleo propio de Lezo, 3 a través del Plan de Empleo de Lanbide, 3 a través del Plan de Choque por el empleo joven y 3 a través del programa Kokatu de Lezo.

El fomento de la economía está estrechamente ligado al bienestar de las personas y en este caso, además, el empleo, significa a las personas. Por ello, durante estos próximos años seguiremos trabajando para ofrecer nuevas oportunidades de empleo y mejorar el bienestar y la calidad de vida de las y los lezoarra.

## Lezoko ekintzakin gozatzeko lekua guztiontzat

## Espacios para que todas y todos podamos disfrutar



Udala lanean ari da, herriko puntu edo eraikin desberdinietan antolatzen diren ekintzetan, mugikortasun murriztua duen pertsonek beraientzat jasotako toki edota gunea izan dezaten. Asmoa da, leku bakoitzean zehaztutako gune hori, edozein ekintza edo ekitaldirako errespetatzea eta betirako izaera ematea.

El Ayuntamiento trabaja para definir, en distintos puntos y edificios del municipios, una zona exclusiva para las personas con movilidad reducida. El objetivo es que, una vez definidas las zonas, estas sean respetadas y de carácter permanente para cualquier acto y/o evento.

# Enpleguari bultzada emanez



Pertsonak eta kasu honetan lezoarrak dira udal jardunaren abiapuntu zein jomuga nagusia. Ildo horretan, jakinik ekonomia eta bereziki enplegua dela gaur egungo gizartean eta pertsonengen gehien eragiten duen gaia, Lezoko udal gobernuak lehentasunezkotzat jo du beti tokian tokiko ekonomiaren eta enpleguaren sustapena, hain zuzen enplegua sortu eta herriko langabetuei irtenbide zein aukera berriak eskaintzeko.

Horretarako, joan den legealditik Oarsoaldea Garapen Agentziarekin elkarlanean Lezoko Enplegu Plana zein beste hainbat egitasmo eta programa sustatzen eta bultzatzen ditu herriko garapen ekonomikoa suspertu eta langabeziari aurre egiteko: Ereiten programa, Badia Berri intserzio enpresa, Proiektu Bereziak egitasmoa, Hazilan, Formazio Okupazionala... eta horiek guztiak profil ezberdinako pertsonei daude zuzenduak: gizarte bazterkeria arriskuan zein egoeran daudenei, gazte kualifikatuei edota langabetuei oro har. Horiez haratago, Lezon Kokatu egitasmoa ere garatzen da, gizarte zerbitzuetatik bideratutako pertsonek tokian tokiko enpresetan lan egiteko aukera izan dezaten.


Gaur egun, noski, guztiek dute jarraipena, datozen 4 urteotan ere, gobernu taldearen ardatz eta helburu nagusietako bat delako tokiko jarduera ekonomikoa indartzen eta enplegu aukera berriak sortzen jarraitzea.

*Con el cierre del ejercicio de 2019, Lezo ha recoge datos muy significativos que sitúan su índice del paro en un 8.9%, por debajo del índice comarcal (9.5%) y muy cerca del índice territorial (8.8%).*

*Así pues, atendiendo a los últimos datos recogidos por Lanbide, desde el 2015 al 2019, hay un total de 67 personas menos desempleadas y la tasa de desempleo, por tanto, ha descendido un 2.1%.*

*Fomentar la economía local y crear nuevas oportunidades de empleo seguirá siendo uno de los principales ejes de trabajo del equipo de gobierno, para lo cual dará continuidad a las iniciativas y los programas emprendidos durante la anterior legislatura e impulsará nuevos proyectos.*


**2015ean baino %19 langabetu gutxiago Lezon**



\* Langabeziaren bilakaera

Udala ekonomia eta enpleguaren esparruan egiten ari den lanaren adierazle nagusiak, ordea, datuak dira, eta kasu honetan, etengabeko lanaren fruitu gisa, Lezok ezin hobe itxi zuen 2019. urtea, langabezia datuei dagokienean. Izan ere, 2015az geroztik, Lezoko langabezia tasa %2.1 jaitsi da eta gaur egun %8.9an kokatzen da. Zifra esanguratsua, benetan, kontutan izanik eskualde mailakoa baino baxuagoa (%9.5) eta lurralte mailako bataz bestekoaren ia parekoa (%8.8) dela.


Azken lau urteotako datuen arabera, 2015ean 353 langabetu zeuden herrian, 2016an 337, 2017an 276, 2018an 290 eta itxi berri den urtean, 286. Azken 4 urteotan beraz, guztira 67 langabetu gutxiago daude 2015ean baino %19 gutxiago. Profilari erreparatuz, aldiz, orokorrean, gizonezko baino emakume gehiago daude langabeziian (111 gizon eta 175 emakume).



\* Langabezia sexuaren arabera

Edozein kasutan, badira oraindik langabeziian dauden herritarrok eta guztiei aukera berriak eskaintze aldera, udal gobernuak lan egiten jarraituko du Lezoko langabeziari aurre egiteko eta noski, lezoar ororen ongizatea bermatzeko.

## Ibilbide osasuntsuak: herri ingurunea



Lezoko Udalak, kirol sailaren zuzendaritzapean, lezoarren bizi kalitatea hobetzeko eta Lezon zein herritarren artean bizitza eta ohitura osasuntsuak sustatzeko Lezoko Ibilbideak egitasmoa jarri zuen martxan 2015. urte amaieran.

Ibilbide horien bitartez, jarduera fisikoa sustatzeaz gain, helburua zen Lezoko ondare natural, historiko eta kulturala ezagutzera ematea eta horrela sortu ziren, hain zuzen, Lezoko landa inguruneko 3 ibilbideak: Xoxolarra Alarguntza (11km), Olazar Lorbide (4.5km) eta Altamira Bordatxo (3.4km).

Abiapuntu eta helburu berarekin, Udalak jarraiapena eman dio aipatu egitasmoari eta oraingoan gauza bera egin du herri ingurunean ere. Horrela, Lezo, Pasaia eta Errenteria batzen dituen lau ibilbide osasuntsu berri landu ditu, guztia, Muitulezo estrategiaren baitan kokatuta.

Ibilbide horiek guztiak edonork egin baditzake ere, Udalak azpimarra berezia jarri nahi izan du adineko pertsonengan, zahartzaro aktiboa eta osasuntsua bultzatze aldera. Horrela, ibilbide guztiak irisgarriak eta lasaiak dira, oztopo arkitektonikorik gabeak, alegia. Gainera, herri inguruneko ibilbideek Lezoko puntu esanguratsu eta bereziak balioan jarri eta berreskuratzen dituzte, besteak beste: Gurutze Santuaren basilika, Kale Nagusia, Andreone jauretxea, Zubitxo labaderoa, "Markesane" Lezoandia zuhaztia, Xoxolur...

Ibilbide guztiak behar bezala seinaleztatuta daude herritarrentzat, baita bisitarentzat ere eta aipatu interes guneetan azalpen panelak jarri dira gune edota eraikin esanguratsu horien inguruko informazioarekin.

*Con el objetivo de mejorar la calidad de vida de la población y promover hábitos saludables para una vida saludable, a finales de 2015, el Ayuntamiento puso en marcha la iniciativa "rutas de Lezo", creando de ese modo, 3 recorridos rurales (Xoxolurra Alarguntza, Olazar Lorbide y Altamira Bordatxo).*

*Así las cosas, partiendo de esa misma premisa y dando continuidad a la citada iniciativa, recientemente han creado cuatro nuevos recorridos, esta vez en territorio urbano. A pesar de que son rutas pensadas para todo tipo de personas, el Ayuntamiento ha querido hacer especial hincapié en las personas mayores, creando así recorridos accesibles, tranquilos y sin barreras arquitectónicas.*

# Recorridos saludables de Lezo: zona urbana

## Lezo - Kaxko bidea: 2.3km, 29min.



Lezoko hirigune historikoa zeharkatzen duen bidea da. Herrian dauden balio arkitektoniko handieneko eraikuntzak batzen ditu ibilbide honek, baita herria koroatzen duen Lezoandia zuhaiztia, "Markesane".

Esta ruta transcurre por el casco histórico de Lezo. En la misma se localizan las edificaciones de mayor valor arquitectónico de la localidad y también la arboleda Lezoandia "Markesane".

## Lezo - Zuhaitzti bidea: 3.1km, 45min.



Lezo herriguneko ipar-ekialdea zeharkatzen duen bidea da. Herriguneko bi zuhaitzik bat egiten dute paseo horretan: baratze parkeoa eta Xoxolurrekoak, alegia. Ibilaldi horretan aurkituko dugu, baita ere, Zubitxoko labaderoa.

Ruta que recorre el noreste de la localidad. Se encuentran en ella dos de las arboledas más significativas del casco urbano: baratze parkea y Xoxolur. Esta ruta también atraviesa el antiguo lavadero de Zubitxo.

## Lezo - Pasai Donibane bidea: 2.4km, 29min.



Lezoko Kale Nagusitik abiatuta Pasai Donibanerutz doan bidea da. Behin Lezoko herria atzean utzita, ibilbidea Pasai Donibaneko "Puntetara" iritsi arte luza daiteke. Bide guztia Pasaiako badia albo batean izanik egiten da; ibilbide oso laua eta eguzkitsua.

Ruta que transcurre hacia Pasai San Juan a través de la Calle Mayor de Lezo. Una vez abandonado el municipio la ruta se puede alargar hasta "Puntas" de San Juan. Todo el paseo se realiza bordeando la bahía de Pasajes. Ruta llana y muy soleada.

## Lezo - Erreenteria bidea: 1.8km, 22min.



Lezoko Donibane kaletik abiatuta, Erreenteriarantz doan bidea da. Ibilbide hau urbanoagoa da Lezoko zatian (Renferen geltokia arte) eta ondoren, bidegorria jarraituz, Arditurriko bidegorriarekin bat egin eta ibilbide luze eta menditsuagoa egiteko aukera ematen du.

Ruta que se dirige hacia Errerteria a través de la calle Donibane de Lezo. Camino más urbano en el tramo de Lezo (hasta la estación de Renfe). Despues sigue un bidegorri que al confluir con el que llega al Parketxe de Arditurri ofrece la posibilidad de realizar un largo recorrido entre montañas.

# Parke osasungarri berria Lopenen

Nuevo parque saludable en Lopene

Herritarren eta bereziki adineko pertsonen artean bizitza aktiboa eta ohitura osasuntsuak sustatzeko, Lezoko Udalak Andreone eta Euskal Herria plazako parke osasungarriak osatu eta berria sortu du Lopenen indarra, erresistentzia eta oreka lantzeko hainbat makinekin.

Parke guztiak ibilbide osasuntsuetan barneratu ditu mugikortasun zaitasunak dituzten herritarrei ariketa fisikoa egiteko aukera emateko. Halere, parke osasungarriak adin guztiako pertsonek erabil ditzakete.

Bajo la misma premisa de fomentar hábitos y costumbre saludables entre la ciudadanía y en especial entre las personas mayores, el Ayuntamiento de Lezo ha dado un paso más para completar su red de parques saludables.

Ha completado los parques saludables de Andreone y Euskal Herria y ha creado uno nuevo en Lopene, integrando todos ellos en los recorridos saludables para que las personas con dificultades de movilidad, además de pasear, puedan hacer ejercicio físico. Aun así, cualquier persona puede hacer uso de los parques.




# **Metrominutu egitasmoa** *Iniciativa Metrominutu*

Ibilbide edota parke osasungarrien egitasmoarekin batera, ohitura eta bizitza osasuntsua sustatzeko helburuari jarraiki, Udalak "Metrominuto" deituriko egitasmoa ere bultzatu nahi du lezoarren artean.

Metrominutuk herriko puntu batetik bestera oinez mugitzeko dauden distantziak eta denborak markatzen dituen mapa da. Bertan, metroko mapetan bezala, kolore ezberdinez markatu dira ibilbideak eta baita horien denborak ere.

Metrominutu es una iniciativa del Ayuntamiento de Lezo para seguir promoviendo prácticas y hábitos de vida saludables. Se trata de un mapa similar a los del metro, que indica la distancia y el tiempo que hay caminando desde un punto a otro municipio.



# Aurtengo udan, urarekin jolasean Lezon

Datorren udari begira, Lezoko udal igerilekuak jolas gune berria estreinatuko du, ur jolasen gunea, alegia.

Izan ere, Lezoko Udalak esleitu berri ditu Altzate igerilekuuan ur-jolas parkea eraikitzeko lanak. Proiektuaren helburu nagusia da familientzat eta bereziki haurrentzat jolas-gune berri eta freskagarria sortzea, igerilekuaz haratago, gaur egun ez baitago Altzaten horrelako beste espaziorik.



Jolas guneak, beraz, aisiaaldi aukera berria eskainiko die herriarrei eta aldi berean, igerilekuak egun eguzkitsua eta beroetan izan dezakeen erabilera gainkarga arintzen lagunduko du, lezoarrek freskatzeko aukera gehiago izango baitituzte. Gauzak horrela, ur jolas-guneak 100m<sup>2</sup>ko azalera izango du eta gaur egun dutxak dauden eremuan kokatuko da. Aipatu espazioak, halaber, adin desberdinako haurrei zuzenduriko jolas zein guneak izango ditu.

## 0-4 urte bitartekoentzako gunea

Adin tarte horretako haurrei zuzenduriko jolasak altuera txikikoak izango dira eta haurren zentzumenen garapenean eta urarekiko interakzioan egongo dira oinarrituta. Jolas horiek izango dira, esaterako, dortokarena, karramarroarena edota lurreko ur txorroak.

## Familia eta haurrentzako gunea

Gune honetan haur zein gurasoak elkarrekin jolasteko aukera izango dute. Jokoak aktiboagoak izango dira eta erabiltzaileak batetik bestera mugitu beharko dute ur txorroak pizteko.

## Gazttxoentzako gunea

Gune honetako jolasak handiagoak eta altuagoak izango dira. Horien artean, "Water Fall" deituriko jolasa nabarmentzen da. Aipatu jolasa altuera jakin batean zintzilik dagoen kubo bat da, zeina, urez betetzean jausi eta inguruan dauden erabiltzaileak bustitzen dituen.

## *Los juegos de agua llegan a Lezo*

Este próximo verano las y los lezoarras estrenarán un nuevo espacio lúdico, familiar y refrescante en las piscinas de Altzate: el parque de juegos de agua.

Mediante dicho proyecto, el Ayuntamiento de Lezo pretende mejorar las actuales instalaciones y ofrecer a la ciudadanía un nuevo espacio del que todas y todos puedan ser partícipes, un espacio con elementos accesibles, seguros y con un alto valor lúdico que aportará diversión para toda la familia.

Dicho espacio se construirá en la actual zona de las duchas, constará de 100m<sup>2</sup> y estará compuesto de juegos específicos para cada rango de edad: 0-4 años, familias y público juvenil y jóvenes.

# ALDERDI POLITIKOAK



PSE-EE  
PSOE



Egungo gizartea abiada bizian aldatuz doa eta horrekin, baita gure hiri zein herriak eta bertako biztanleria edota bizimodua ere. Aldaketa prozesu horretan, Lezoko EAJ-PNVk garai berrieikin bat egin eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren oinarriei jarraiki, elkarlaneko gobernanza ereduari heldu dio.

Bide horretan, EAJ-PNVk herriko bizikidetzaren oinarriak definitu eta errotzea lehenetsi du. Helburua da Lezoko bizikidetza eredua garai berrietara egokitu eta hobetzen jarraitza, Lezo zein lezoarron etorkizuna eraikitzeko urratsak ematen jarraitzeko. Abiapuntu horri helduta eta elkarlanerako gobernanza ereduari jarraipena emate aldera, EAJk elkarlanerako bideak zabaldu nahi dizkie bai herritarrei zein Udaleko gainerako alderdi politikoei ere, ideia edota pentsamolde desberdinaren arteko bizikidetza normaldu zein indartzeko eta elkarrekin Lezo hobeago baten alde lan egiteko.

*En la actual sociedad de cambio, EAJ-PNV de Lezo se ha unido al modelo de gobernanza colaborativa fomentado por la Diputación, la cual se basa en una visión compartida sobre el futuro de Lezo y las acciones para hacerlo realidad y para ello, desea abrir las vías de la colaboración tanto a la ciudadanía como a los grupos de la oposición para entre todos, construir un municipio mejor.*

2020ko aurrekontuetan 123.000€ gehiago ditugu. Horregatik, ulertzina da, ongizateko edota berdintasuneko partidak, adibidez, ez handitzea. Eta onartezina iruditzen zaigu murriketak egitea:

- %99 Bazterkerian.
- %37,5 Emplegu planean 2018rekiko
- %46 Berdintasunean 2018rekiko

Arlo sozialean murriketak egin dituzte, baina EAJ-PSEko kideen soldaten partida %32 igo dute. 72.246€ gehiago.

Guk 300.000€ko proposamenak aurkeztu genituen. 280.000€ ongizatera, herritarren ahaldeuntzera, berdintasunera, eta energia berritzagarietara bideratuak. EAJ-PSE gobernu taldeak ez zigun bozkatzeko aukerarik ere utzi.

*En los presupuestos de 2020 tenemos 123.000€ más. Por eso es incomprensible que no se incrementen las partidas dedicadas al bienestar o a la igualdad, por ejemplo. Y es inaceptable que se hagan recortes:*

- 99% en la cartera de exclusión
- 37,5% en el Plan de Empleo respecto a 2018
- 46% en Igualdad respecto a 2018

Recortes en el ámbito social pero la partida de salarios del equipo PNV-PSE ha tenido un incremento del 32%. 72.246€ más.

Presentamos propuestas de 300.000€. 280.000€ destinados al bienestar, al empoderamiento, a la igualdad, y a las energías renovables. El equipo de Gobierno PNV-PSE no nos dio la oportunidad de votar.

*Avanzar en la mejora de la calidad ambiental y favorecer el tránsito de Lezo hacia un municipio más ecológico, lo cual revertirá en el bienestar de sus vecin@s, es uno de los objetivos de la concejalía de Medioambiente de la que es responsable el PSE-EE en el Ayuntamiento.*

*La aprobación del primer Plan de Mejora del Ambiente Sonoro y dotarnos en breve de una Ordenanza Reguladora de Ruidos son dos buenos ejemplos del camino emprendido, al igual que el convenio firmado con el Gobierno Vasco para llevar a cabo diferentes actuaciones de mejora y conservación en las regatas del municipio.*

Lezoko PSE-EErentzat, Udalak berdintasunaren alorra aktiboki lantzen eta jorratzen jarraitu behar du, desberditansun egoeren aurrean irmoki jokatuz, horrela lortuko baitugu Lezo herriko biztanle eta kolektibo guztien inklusio mailan, autonomian, askatasunean eta berdintasunean erreferente bilakatzea.

*Hay mucho trabajo por hacer para seguir manteniendo y mejorando el municipio, para seguir creando nuevas oportunidades para el ocio, la cultura, la economía y la calidad de vida, y la labor del PSE-EE de Lezo es hacer que eso sea posible.*

El servicio de orientación de actividad física (KOZ) está integrado bajo la estrategia Muittulezo y, bajo la orientación de Jon Amiama, responsable del servicio, las personas beneficiarias del mismo reciben una asesoría personalizada acorde a sus necesidades.

¿Quieres conocer más sobre la estrategia Muittulezo y todo lo que conlleva? Jon nos lo cuenta.



## Zer da KOZ-a eta zertan datza?

Jarduera fisikoaren bitartez herritarren aktibotasuna, ongizatea eta bizi kalitatea hobetzean datza. Uste dut aktiboa izanik norbanakoa hobe sentitu eta zoriontsuagoa izan daitekeela, onena eskainiaz ostean inguruari, eta horretan nabil. Herritar batzuen kasuan hutsetik hasi eta zerbait egiten hastea izango da erronka; aktiboak direnekin aldi, jarduera gehiago eta modu anitzagoan egitea. Lan hori, baina, bakoitzak bere errealitate eta gustuetatik abiatuz egingo du, horra hor nire lana. Konpromisoa egunerokotasunean aktiboago izatean datza, nire laguntzaz bizi ohituretan jarduera fisikoa txertatzean.

Herritar guztientzako doakoa den zerbitzu honek Lezoko entitate ezberdin (anbulatorioa, ongizate saila eta ikastetxeak) arteko lankidetza izan du ardatz; nire esker ona bertako profesionalei.

## KOZ-a aktibotasuneranzko proiektua dela diozu... bakarra al da?

Ez, besteak badira Muittulezo estrategia barnean: Tipi-topa, parke biosasungarriak edota apirileko berritasuna: MARTXAN.

Tipi-topa ostegunero Gurutze Santuaren plazatik abiatzen den ibilaldia da, bi taldetan banatuz, guztiotzako modukoa. Lehenik, ibilbide luzekoak (10:45) eta ondoren (11:00) laburrekoak abiatuz 12:00etan amaitzen dugu plazan salda elkarrekin hartuz eta nik herritar oro parte hartzera animatzen dut. Era berean, Tipi-topa ekimeneko voluntario guztiei eskerrak eman nahiko nizkieke, herri ekimenik ez baita berau osatzen duten herritarrik gabe.

Parke osasungarriak Andreone, Euskal Herria eta Lopeneko plazetan jarduteko prest dituzte 16 urtetik gorako Lezoarrek.

Amaitzeko, apirilaren 21ean, MARTXAN ekimena abiaraziko dugu, asteartero, 11:00etan, saio anitzak egiteko aukera berria eskainiz (Tipitopako egutegi bera): Lehen (Lopenen) eta azken



**Jon Amiama Jauregi**

Kirol Orientazio Zerbitzuaren arduraduna

Soy Jon Amiama Jauregi, orientador del Servicio de Orientación de Actividad Física de Lezo (KOZ). El servicio tiene como objetivo el bienestar y la mejora de la calidad de vida de las y los lezoarras mediante la actividad física. Afirma que siendo activa/o se es más feliz y nos sentimos mejor con nosotras/os mismos y nuestro entorno, y trabajo para ello. Mi tarea será conocer la realidad y gustos de la persona proponiéndole recursos a su alcance en el municipio y alrededores e ir por un lado introduciendo la actividad física en su día a día, y por otro, en caso de ser ya activo, intentar serlo más y de forma más variada.

Dale una KOZ al sedentarismo y da un paso adelante disfrutando del KOZ. ¿Caminamos?

## KOZ-aren ordutegia Horario del servicio

### BEKOERROTA

Astelehenetan Lunes:  
16:00-20:00

Astearte eta asteazkenetan Martes y miércoles:  
09:00-13:00

### ANBULATORIOA

Ostegunetan Jueves:  
09:00-10:30

### HITZORDUA HARTZEKO CITA PREVIA

663 228 031 - koz@lezo.eus

(Andreonen) astearteetan parke osasungarrieta elkartuko gara, eguraldi txarrarekin (kaleko lurra bustia) Bekoerrotako dantza aretoan (frontoi azpian). Gainerako astearteak Bekoerrotako dantza aretoan: bigarren asteartearen oreka, koordinazioa eta indar ariketak eta hirugarren asteartearen, erritmoa lantzeko dantza saioak egingo ditugu. Mugimendua eta gozamena ziurtatua MARTXANEN!

Beraz, ikus dezakezunez Lezon aktibo izateko aukeren sustapenean MARTXAN gabilza, Muittulezorekin Lezo eta lezoarrak 'muittu' nahian eta bidean.

# TOMAS GARBIZU



LezON udal aldizkariaren 9. alean, gaur egun Gezala Auditoriumeko sarrera apaintzen duen muralaren inguruan mintzatu ginen, bertan irudikatuak baitaude orain arteko Lezoko artista edota pertsonai esanguratsuenak, hala nola: Polentzi Gezala, Elias Salaberria, Tomas Garbizu, Trapujale, Xalto eta Brinko...

Oraingoan, aipatu muralean azaldu ez, baina Lezoko kale bat eta Udal Musika Eskolari izena ematen dion Tomas Garbizuren inguruan hitz egin nahi dugu, bere bizia, bizimodua zein lorpenak ezagutarazi, balioan jarri eta omentzeko. Gehiago jakin nahi duzu? Jarraitu irakurtzen!

*En la última edición de la revista municipal hacíamos referencia al mural que protagoniza la entrada del auditorio Gezala, ya que en él se recogen muchas de las figuras más importantes de la historia de Lezo.*

*No obstante, en esta nueva entrega hablaremos del músico y compositor Tomas Garbizu, que a pesar de no figurar en dicho mural, da nombre a una calle y a la Escuela de Música del municipio. ¿Quieres conocer más sobre él? ¡Continúa leyendo!*

Tomas Garbizu musikagilea Lezon jaio zen 1901eko irailaren 12an. Artisten familia baten baitan jaio zen, anai izan baitituen Jon Garbizu "Zubigar" olerkaria, Daniel Garbizu "Iruzubi" bertsozalea eta kronikagilea eta Liborio Garbizu pilotari iaioa eta baritonoa. Elias Salaberria margolaria, halaber, lehengusu izan zuen.

Hamar senideen artean zortzigarrena izan zen Tomas eta bere musikarako sena haurra zenetik erakutsi zuen. Solfeoko oinarriak eta musikarako diziplina txikitatik bereganatu zituen Lezoko parrokian. Koruko partaide eta organo ikaslea izan zen eta 14 urte betetzerako jada konposatua zuen "Cántico de la comunión" abestia.

1916an, hamabost urte betetzean zituela Arantzazuko ikastetxe Frantziskotarrera joan zen musika ikasketak zabaltzera. Lau urtez egon zen bertan eta ondoren Donostiako Musika Akademian izan zen pianoa eta harmonia ikasten. Organoa jotzen ere ikasi zuen, baina bere kabuz, autodidakta gisa. Pasai Donibaneko elizan organista gisa ere lan egin zuen eta herriko haurrei solfeoa edota pianoko eskola partikularrak eman zizkien.

Gerra zibila hasi zenean, ordea, erbestera ihesi egin behar izan zuen, mendebaldera lehenbizi eta iparraldera ondoren eta guda amaitu ostean,

Madrilen egin zituen urte ugari. Madrilgo Frantziako enbaxadan organo jotzaile ofizial gisa aritu zen eta aldi berean kontzertu ugari eskaini zituen Radio Nacional-en, San Jeronimo el Real eta San Marcos parrokietan, baita El Escorialako monastegian ere.

1952an, Madrilgo pasartea amaitutzat eman eta Euskal Herrira itzuli zen. Hemen zela, Donostiako Udalak bere Musika Kontserbatorioan atera zituen katedra oposizioetara aurkeztu eta solfeoko katedra erdietsi zuen. Urtebete beranduago, halaber, solfeoko katedrari organokoa gehitu zitzaion eta, horrenbestez, Garbizu solfeo eta organo katedradun bilakatu zen.

Jarraitu zuten urteetan gogor lan egin zuen, baina Garbizuk irakasle izatea baino nahiago zuen konpositore izatea eta gauzak horrela, 1971. urtean erretiroa hartu eta konpositore lanetan bizi zuen bere azken 17 urteak.

Musikari lotuak egin zituen beraz, Garbizuk, bere bizitzako urte gehienak eta egindako lanak eta musikarako zuen dohainak, Euskal Herrian izandako musikari onenetariko bat izatera eraman zuen.

Aurten 31 urte beteko dira Garbizu hil zenetik baina bere irudiak oso bizirik jarraitzen du eta jarraituko du beti Lezon, musika eta Tomas Garbizuren izena

beti egongo baitira elkar lotuak gure herrian (horra hor, esaterako Musika Eskolaren izena).

Informazio gehiagorako kontsultagarri dago udal webgunean Patxi Intxaurrandieta eta Patri Urkizuk 2002an argitaratutako liburua: "Tomas Garbizu 1901-1989".



Tomas Garbizu nació en Lezo en el seno de una familia de artistas. Se inició en el mundo de la música desde muy pequeño, primero en Lezo y después en la escuela de franciscanos de Arantzazu y en Donostia. Así aprendió, entre otros, a tocar el piano y el órgano, este último de forma auto didacta. Cuando estalló la guerra tuvo que huir al exilio y una vez finalizada esta, pasó varios años en Madrid, desde donde volvió en el año 1952 para presentarse a las oposiciones para la cátedra de solfeo del Conservatorio de Donostia, la cual logró obtener. Un año más tarde, se sumó a esta la cátedra de órgano y Garbizu trabajó hasta 1971 como profesor en dicho Conservatorio.

No obstante, su vocación estaba unida a la composición, por lo que tras su jubilación se dedicó a componer, dejando tras él un amplio legado que lo llevó a ser uno de los mejores músicos y compositores de la historia de Euskal Herria.

## Garbizuren "Kontzertu Magikoa"



2019ko azaroaren 27an Jon Makuso musikari lezoarrak Tomas Garbizuren "Biolin eta orkestrarako kontzertu magikoa" aurkeztu zuen Musikenen, bere ikerketaren zuzendaria izan den Josu Okiñenarekin batera.

Aipatu obra, argitaratu gabea zen, eskuizkribu originala, alegría. Izen ere, Makusok, Musikeneko master amaierako lana Garbizuren inguruan egiten ari zela, konpositorearen obren artean, lan honen lehen eskuizkribuarekin egin zuen topo, osatu gabeko eskuizkribu batekin, alegría.

Obra 1959-1960 bitartekoa da eta Estatu osoan ez dago garai honetako den biolín eta orkestrarako kontzertu bakar bat ere. 3 urtetan zehar Makusok eta Okiñenak obra aztertu, berreskuratu eta osatu dute eta gauza bera egin dute Garbizuk pianorako egindako orkestraren erreducciónarekin ere.

Lanketa horri esker, joan den martxoaren 5ean, Garbizuren lan hori (pianorako erreducciónarekin, noski) lehen aldiz jo zen jendaurrean eta noski, kontzertu hori Lezon eskaini zen, Garbizuren jaioterrian, lezoar guztiontzat, hunkigarria bezain sentikorra izan zen emanaldian.

El pasado 5 de marzo el auditorio Gezala se llenaba de gente para escuchar por primera vez la reducción para piano del llamado "Concierto mágico para violín y orquesta" de Tomas Garbizu, una obra recientemente recuperada por el lezoarra Jon Makuso y Josu Okiñena que supone gran aportación a nuestro patrimonio, ya que es el primer concierto vasco existente para violín y orquesta, el único español de la segunda mitad del siglo XX y uno de los cinco primeros de los siglos XX y XXI.

# LEZO ZOINU 2020

## XXXIV. ASTE PEDAGOGIKO MUSIKALA

### MARTXOAK 26

18:00 TAILER DIDAKTIKOA

Musika Eskolan

### MARTXOAK 27

11:00 KONTZERTU

PEDAGOGIKOA

Gezala Auditoriumean

18:00 ORKESTRA TAILERRA

Musika Eskolan

19:00 AKORDEOI KONTZERTUA:

Lauhaizeta Akordeoi

Orkestra

Gezala Auditoriumean

### MARTXOAK 28

19:00 BANDA KALEJIRA

Kaleetan zehar

19:00 ABESBATZEN

KONTZERTUA: Giltzarri  
(Lesaka) eta Sutargi

Gezala Auditoriumean

### MARTXOAK 29

10:00 DIANA

Kaleetan zehar

19:00 KONTZERTUA:

Ghost Number &  
His tipsy Gypsies

Gezala Auditoriumean

### MARTXOAK 30

18:00 KONTZERTUA: TGME

Gezala Auditoriumean

20:00 MINDFULNESS TAILERRA

Musika Eskolan

### MARTXOAK 31

19:00 KONBOAK: Gotzen,

Jaig, Ordu Txarra, Half 8

Gezala Auditoriumean

### APIRILAK 2

18:00 KONTZERTUA: TGME

Gezala Auditoriumean

20:00 MINDFULNESS TAILERRA

Musika Eskolan

### APIRILAK 3

17:15 ITZAL ANTZERKIA & PIANO

Gezala Auditoriumean

19:30 KONTZERTUA:

Jan Van Charles Group

Gezala Auditoriumean

### APIRILAK 4

12:30 GANBARA MUSIKA:

Euskadiko musikari gazteak

Gezala Auditoriumean

### APIRILAK 6

15:30 KONTZERTUA:

Sutargi abesbatza

Eguneko zentroan

LEZO

AGENDA  
*Kulturala*

2020  
URTARRILLA  
EKAINA



@LezokoUdala



@LezoUdala

DESCARGATU LEZO ESKURA JARRIKO  
DIZUN APP-A

DESCARGA LA APP PARA CONOCER  
TODA LA PROGRAMACIÓN

